

SAIO KLINIKO OROKORRA – HOSPITAL UNIVERSITARIO BASURTO**DERMATOLOGIAKO SAIO OROKORRA****AURKEZLEA: DRA. ISABEL GAINZA APRAIZ DOKTOREAK****MODERATZAILEA: DRA. SILVIA PÉREZ DOKTOREAK****2020KO IRAILAREN 25EAN, 8:15. ZOOM BIDEZ****DERMATOLOGIAKO SAIO OROKORRA**

- Sexu transmisiozko infekzioen (STI) zerbitzuan geundelarik, haren familia medikuak igorrita garrantzisko aurrekaririk gabeko 37 urteko gizona etorri zen gure kontsultara, zakil-mokoan herpes genitala ziruditen lesioak ba omen zituelako.
- Antza, zuela astebete agertutako lesioak asintomatikoak ziren, eta pazienteak ez zuen bestelako sintomarik eduki. Miaketa fisikoan gainazaleko hainbat erosio antzeman zitezkeen zakil-mokoan, eta zenbatek dianadun itxura zuten. Gainerako miaketa fisikoa arrunta izan zen.
- Sexu ohiturei bideratutako elkarrizketan, gizonak heterosexuala zela eta duela 5-6 urtetatik bikotekidea zuela onartu zigun. Azken harreman sexuala duela hilabete eduki zuen, eta azken urtean ez zuen beste inorekin harremanik izan. Bikotearekin ez zuen inolako babes neurririk hartzen, eta ez zuen aurretik inolako STIrik eduki.
- Pazienteak sexu harreman arriskutsuak eduki izana ukatzen bazuen ere, STIak baztertzeko proba osagarriak burutzea erabaki genuen. Halere, ez genuen herpes genitala susmatzen...